

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2023/24

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

1. maila

**IRAKASGAIA**

25937 - Gizarte Zerbitzuen Oinarriak

**ECTS kredituak:** 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Gizarte zerbitzuetarako Oinarriak irakasgaia Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Politikak moduloaren lehenengo irakasgaia da. Gizarte zerbitzuen irakasgaietarako sarrera gisa jokatzeko du eta ateak irekitzen dizkio bigarren mailako irakasgaiari - Komunitaterako Gizarte Zerbitzuak- zein hirugarren mailakoari -Gizarte Zerbitzu Espezializatuak-.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK****EDUKIAREN DESKRIBAPENA:**

Lehenik eta behin gizarte zerbitzuak ulertzeko oinarriko kontzeptuak eta hauen inguruko sarrera orokorra eskeintzen da. Ondoren, gizarte ekintzaren bilakaera historikoa aurkezten da, bertan arreta berezia ematen zaio bilakaera honetan aurkitu daitezkeen haustura eta jarraikortasunei. Bilakaera historikoarekin bukatu ondoren, gizarte zerbitzuetako ezaugarri nagusiak, testuinguru juridikoa eta hauen eskumenen banaketa aztertzen dira. Era berean, gizarte zerbitzuak eta genero perspektibaren artean dagoen harremanean ere sakontzen da, honen bidez arlo honetako zeharkako azterketa egin ahal izateko. Azkenik, gizarte zerbitzuetako arreta maila ezberdinak lantzen dira eta azken gai honen bidez bidea irekitzen zaie gai hauek sakonean landuko dituzten irakasgaiari.

**GAITASUNAK:**

- Estatu, zein erkidego edota tokiko gizarte zerbitzuen ekintza eta hornidura ezagutzea eta ikasketa-objektuen inguruko sarrera eskeintzea. Horrela, lehenengo gerturapen honen bidez gizarte zerbitzuak eta beste esku-hartze motak ondo bereiztea nahi da.
- Gizarte zerbitzuen populazio-sektoreak ezagutzea eta bereizte.
- Gizarte zerbitzuen arreta maila ezberdinak bereiztea eta bakoitzaren ezaugarri nagusienak ezagutzea.
- Gizarte ekintzaren garapen historikoan sakontzea. Honen bidez gaur egungo gizarte zerbitzuekin konparatu ahal izateko eta hauen arteko aldaketak eta jarraikortasunak azpimarratzeko.
- Gaur egungo gizarte zerbitzuetako arazo eta erronka nagusien inguruko eztabida eta gogoeta sustatzea.
- Gizarte zerbitzuei loturiko elementu teoriko zein egoera praktikoen inguruko gogoeta kritikoa gauzatzeko almena sustatzea.
- Elkarkidetzak, laguntza eta enpatia bultzatzen duen taldeko lana bultzatu.
- Lan autonomia eta ikertzeko ahalmenetarako tresnak eskeintzea.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. GAIA: GIZARTE ZERBITZUEN KONTZEPTUA ETA IZAERA.
  - 1.1. Giza eta gizarte beharizanak.
  - 1.2. Gizarte beharizanei emandako erantzuna: baliabidea.
  - 1.3. Gizarte zerbitzuen populazio sektoreak.
  - 1.5. Gizarte zerbitzuak: kontzeptua.
  - 1.6. Beste disziplinekiko harremana.
2. GAIA: GIZARTE EKINTZAREN EBOLUZIO HISTORIKOA (I): KARITATETIK ONGINTZARA.
  - 2.1. Gizarte ekintza Aintzinaroan.
  - 2.2. Gizarte ekintza Erdi Aroan.
  - 2.3. Gizarte ekintza Errenazimenduan.
  - 2.4. Gizarte ekintza XVIII. mendean: Ilustrazioa.
3. GAIA: GIZARTE EKINTZAREN EBOLUZIO HISTORIKOA (II): ONGINTZATIK GIZARTE ZERBITZUETARA
  - 3.1. Gizarte ekintza XIX. mendean.
  - 3.2. Gizarte ekintza XIX. mendean Espainian.
  - 3.3. Gizarte ekintza XX. mendean Espainian.
4. GAIA: GAUR EGUNGO GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIAK: GIZARTE ESKUBIDEAK.
  - 4.1. Ongizate Estatuaren Sorrera: Bismarck eta beste zenbait aintzindari.
  - 4.2. Espainiako eta EAeko Gizarte Zerbitzuen marko juridikoa.
  - 4.3. Ongizate Estatuaren Krisia.



## 5. GAIA: GENERO PERSPEKTIBA GIZARTE ZERBITZUETAN.

- 5.1. Sarrera
- 5.2. Genero eta genero perspektiba
- 5.3. Genero-perspektiba politika publikoetan integratzeko neurriak
- 5.4. Genero-perspektiba eta Ongizate Estatuaren oinarritzko hitzarmena
- 5.5. Generoa eta gizarte zerbitzuak

## 6. GAIA: GIZARTE ZERBITZUETAKO HORNITZAILEAK ETA ARRETA MAILAK.

- 6.1. Gizarte zerbitzuen hornitzaileak.
- 6.2. Gizarte zerbitzuen arreta mailak.

### OINARRIZKO LEGEDIA:

- Espainiar Konstituzioa.
- EAE-ko Autonomi Estatutoa.
- Gizarte Zerbitzuetako Legeak (1982, 1996 eta 2008. urteko legeak)

## METODOLOGIA

- Klase magistralak: Klase hauetan edukin teoriko nagusienak aurkeztuko dira. Era berean, ikaslearen ikerketa eta analisi kritikorako beharrezkoak diren tresnak eskeiniko dira. Klase hauetan ikaslearen partehartze kritikoa bultzatuko da.
- Mintegiak eta jardura praktikoak: Kasu honetan ikaslearen garrantzia erabatekoa da, saio hauek talde zein norbanakoaren ekarpenen arabera egituratuko baitira. Aurkezpenei arreta berezia eskeiniko zaio, honen bidez jendearen aurreko trebetasunak bultzatu ahal izateko.
- Lan autonomoa: Kasu honetan talde zein norbanakoek egindako lanak izango dira. Momentu oro, irakaslearen etengabeko gainbegiraketa egongo da.
- Tutoretzak: Saio hauetan irakasleak klase teoriko, mintegien prestaketan edota lanen ebaluazioaren inguruko zehaztapenak eta eztabaiden argipenak egingo ditu.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		22,5						

<b>Legenda:</b>	M: Magistrala	S: Mintegia	GA: Gelako p.
	GL: Laborategiko p.	GO: Ordenagailuko p.	GCL: P. klinikoak
	TA: Tailerra	TI: Tailer Ind.	GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40
- Banakako lanak % 60

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Bi ebaluazio mota izango dira:

### ETENGABEKO EBALUAZIOA

- Banakako zati teoriko-praktikoa: banaka egiteko ariketak (proba idatzia, test motako probak, ikasgelako ariketak, eta abar): ezken notaren %60.
- Taldeko lanak (lanak egitea, talde aurkezpenak): %40.

Ikasgaia gaintu ahal izateko, bai banakako zati teoriko-praktikoa eta bai taldeko lana ere biak gaintuta egon beharko dira. Ohiko Deialdian bietatik bakarra gaintuz gero, beronen nota Ezohiko Deialdirako gordeko da, beti Ohiko Deialdian ikaslea zati bietara aurkeztu bada. Horrela ez balitz, Ezohiko Deialdian zati biak egin beharko dira.

"Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari. (12.2 art).



## EBALUAZIO EZ JARRAIA

Edukiak eta ehunekoak Etengabeko Ebaluaketaren berdinak izango dira, baina taldeko lana banaka egin beharko da, eta ikasturte hasieran ezarritako datan entregatu beharko da.

Ikasleak eskubidea dauka Ebaluazio ez jarraia egiteko, baldin eta ikasgaiaren lehen bederatzai asteetan idatziz ikasgaiaren irakasle arduradunari eskaera egiten badiu

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdiaren berdinak izango dira

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

- ALEMAN, Carmen / GARCÍA, Mercedes (1999): Fundamentos de Bienestar Social, Valencia: Tirant lo Blanch
- ALEMAN, Carmen / FERNANDEZ, Tomás (2004): Introducción a los Servicios Sociales, Madrid: Universidad Nacional de Educación a Distancia
- CASADO, Demetrio / Gillén, Encarna (2001): Manual de Servicios Sociales, Madrid: CSS
- FANTOVA, F. (2008): Sistemas públicos de servicios sociales: Nuevos derechos, nuevas respuestas, Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.
- GALLEGO, Mari Jose / GONZALEZ, Mercedes (1997): Aproximación a la Acción Social y a los Servicios Sociales, Huelva: Cuché
- Seminario de Historia de la Acción Social (1986): De la beneficencia al bienestar social. Cuatro siglos de acción social, Madrid: Siglo XXI
- ROLDÁN, Elena y GARCÍA, M<sup>a</sup> Teresa (2005): Políticas de servicios sociales, Síntesis, Madrid.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

### Aldizkariak

Erreferentziak egelaren bidez zabalduko dira.

### Interneteko helbide interesgarriak

- [www.sis.net](http://www.sis.net) Gizarte politika eta zerbitzuetako dokumentazio zerbitzua.
- [www.fantova.net](http://www.fantova.net) Gizarte zerbitzuetan aditua den Fernando Fantovaren web orrialde pertsonala. Bertan txosten, artikulu eta material interesgarriak topa daitezke.

## OHARRAK

Unibertsitatearen araudiaren arabera,

"Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia" (3. puntua, 5. or).

"UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkoetat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiitzea, hau da, inoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan" (2.a. puntua).

### URRUTIKO EBALUAKETA EDO EZ PRESENTZIALA

Urrutiko edo ez presentzial ebaluaketa ezarri beharko balitz, ebaluaketa sistema berdina izango da, eta beharrezkoa izanez gero, egin beharreko ariketa motak eta entregatzeko epeak berregokituko dira.

